BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

167

AGINDUA, 2013ko azaroaren 27koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Bilboko Iturrigorri eta Gardeazabal auzoetako 734.01 Egikaritze-Unitatea, I. Fasea» izeneko proiektua burutzeko desjabetu behar diren ondasun eta eskubideak hartu aurreko aktak egiteko egunak adierazten dituena.

Bilboko Udalak, 2010eko urtarrilaren 28an, erabaki zuen behin betiko onartzea Bilboko Hiri Antolaketarako Egitamu Orokorraren Aldaketa Puntuala, 734 Banaketa Eremuan, Iturrigorri eta Gardeazabal auzoetan.

Enplegu Eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko ekainaren 10eko Aginduz, «Bilboko Iturrigorri eta Gardeazabal auzoetako 734.01 Betearazpen Unitatea, I. Fasea» proiektua burutzeko hartu beharreko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari eman zitzaion hasiera.

Jendaurrean jarri ondoren, arauzko izapidea baita, Jaurlaritzaren Kontseiluak ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratu zuen azaroaren 5eko 438/2013 Dekretuaren bidez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horretarako, honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei dei egiten zaie, aipatutako egun eta orduan, eta Bilboko Udalara bertaratu ondoren, ondasun eta eskubideak hartu aurreko aktak egiteari ekin dakion, eta, hala badagokio, lurrak formalki hartzeari ere bai. Interesatuek hala eskatuta, beharrezko bada lur horietara bertara ere joan daitezke.

Interesatuek eurek edo beren izenean jarduteko behar bezala baimendutako ordezkariak bertaratu beharko dute egintza horretara eta aurkeztu beharko dituzte beren titulartasuna egiaztatzen duten agiriak (notario-eskriturak, eskritura pribatuak, Jabego Erregistroaren egiaztagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta bere eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Bidezko baderitzo eta bere kontura, perituak eta notario bat ere eraman ahal izango ditu lagun.

Halaber, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Arautegiaren 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesatuek eta aipatutako zerrendan agertu ez diren gauzekiko edo ekonomia eskubideen titularrek bidezko deritzen alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Aurreko Aktak egiteko adierazitako egunera arte eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu Eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren bulegoetan (Gran Via, 85 - 6.º - 48011 Bilbo), hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda egitean egin ahal izan diren akatsak konpontzekotan soilik.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 27a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

Egitasmoa : "Bilboko Iturrigorri eta Gardeazabal auzoetako 734.01 Egikaritze-Unitatea, I. Fasea"

Titularraren izen-abizenak eta helbidea	Finka	Azalera	Katastroko datuak		Aktak egitea 2014. urtea		
		Desjabetzea	Kokapena partzelarioan	Zenb. finkoa	Hila	Eguna	Ordua
Natalia Cortés Vian Barrio Iturrigorri, 7-behea ezk./bajo izda. Bilbao Bilbao Bizkaia Kutxa	Iturrigorri 7 bajo izda.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. beheko solairuko ezkerra eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 UPBIZ	U3057148L	Urtarrila	21	9:00
Elena Muza Pérez Barrio Iturrigorri, 7-behea esk./bajo dcha. Bilbao	Iturrigorri 7 bajo dcha.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. beheko solairuko eskuina eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 UPBDR	U3057145K	Urtarrila	21	09:45
Ogochukwu Maria Gabriel, Mathew Gabriel Barrio Iturrigorri, 7-1. ezk./1º izda. Bilbao Banco Español de Crédito	Iturrigorri 7 1º izda.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. lehen solairuko ezkerra eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 U01IZ	U3057146S	Urtarrila	21	10:30
Maria Eva Cruz Guerreiro, Estibaliz Soguero García Notif.: Esther Cruz Guerreiro, Rafael Ferruz Martínez Urbanización El Zorongo, Calle Febrero, 88 Ipar Kutxa Rural, Sociedad Cooperativa de Crédito	Iturrigorri 7 1º dcha.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. lehen solairuko eskuina eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 U01DR	U3057144C	Urtarrila	21	11:15
Virgilio Herrero Francisco, Mª del Mar Ahedo González Barrio Iturrigorri, 7-2. ezk./2º izda Bilbao Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.	Iturrigorri 7 2º izda.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. bigarren solairuko ezkerra eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 U02IZ	U3057147D	Urtarrila	21	12:00

Titularraren izen-abizenak eta helbidea	Finka	Azalera	Katastroko datuak		Aktak egitea 2014. urtea		
		Desjabetzea	Kokapena partzelarioan	Zenb. finkoa	Hila	Eguna	Ordua
Teresa Trinchete Dosantos Barrio Iturrigorri, 7-2. esk./2º dcha. Bilbao	Iturrigorri 7 2º dcha.	Etxebizitza (Iturrigorri auzoko, 7. bigarren solairuko eskuina eta osagai komunen zati proportzionala)	020 740 01 007 001 U02DR	U3057149T	Urtarrila	21	12:45